



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko urriaren 7a

101. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, legegintzaldi honetan enkargatutako inkestei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, merezimenduen baremoetan italiara baloratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Bardeetan ingurumen hezkuntzako zentro bat paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, industriarako lurzorua gehitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Buztintxuriko auzoberri- an eginen dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, irakurketa publikoaren mapa egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Buztintxuriko auzoberri- an eginen dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko “haur-etxeak” izeneko zerbitzuari buruzkoa. Foru Dipu- tazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, banderak masta erdian paratzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, antzutasuna diagnostikatua izan eta itxaron zerrendan dauden emakumeei buruzkoa. Foru Dipu- tazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Beteluko zahar-etxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitateko katedrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “Oinarrizko gizarte zerbitzuak” aurrekontuko lerroan kreditua handitzeari buruzkoa. Foru Dipu- tazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Xabierren harrera zentro bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, Uhartan arte garaikidearen zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Ubarmin klinikan garuneko kalteen unitatea sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Buztintxuriko osasun premiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko X izpietarako eta eskanerrera itxaron zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Mendabian Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremuko ardanegi bat paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Orvinan dagoen liburutegia ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Liburutegi Nagusi berriaren lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Jorge Oteiza Museoa Fundazioaren langileen plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, baliatzen direnentzat eta lagunduak direnentzat egoitza guztietako toki kopuruei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, egoitza publikoetan plazak ituntzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, ibilgailuen ikuskaritza teknikorako gune berriak paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian egingen dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian egingen dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Baluartearen lanean aritzen diren pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko planaren ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Irantzu ibaira egindako minda isurketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, ezgaitasuna dutenei laguntza ematen dieten langileen lansariak parekatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urriaren 3an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2005eko urriaren 11ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua 2005eko irailaren 12ko

85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, legegintzaldi honetan enkargatutako inkestei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak legegintzaldi honetan enkargatutako inkestei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du legegintzaldi honetan enkargatutako inkestei buruz. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilariak Nafarroako Gobernuaren eledun den aldetik emandako erantzuna.

Toki Administrazioako Departamentua, Nafarroako zenbait toki entitateekin lankidetzan, zerbitzu publikoak modernizatzeko ekintzei bultzada ematen ari zaie.

Horrela, Fundación Navarra para la Calidad fundazioarekin lankidetzan, toki-zerbitzu publikoetan "bikaintasuna" bilatzen duten kudeaketa-ereduen ezarpena ari da bultzatzen. Hau da, balio frogatua duten tresnak erabiliz zerbitzuak hobetzeko ekintza-multzo bat sustatzen ari da. Horien artean daude Europako kalitate eredua (EFQM), ISO araua eta zerbitzuen gutunak.

Tresna horiek badituzte, gaur egun, berdinak diren zenbait alderdi, hala nola, besteak beste, emandako zerbitzuari buruzko iritzia eta erabiltzaileek identifikaturiko faktore kritikoak ezagutzea sustatzen dutenak.

2001. urtean abiatu zen Infocal proiektua, zeinaren agergarri adierazgarrietakoa baita 012 zenbakiko telefono-zerbitzua. Orduz geroztik, zer-

bitzuen katalogoa handitu egin da. Halaber, 2003an ISO ziurtagiria lortu zen, eta, 2004an, EFQM delakoan oinarrituriko brontzezko ziguila eskuratu zen.

Jardunaren dinamika horrek zerbitzuen erabiltzaile diren herritarren iritzia aintzat hartzeko beharra izan du. Hori dela-eta, 2003az geroztik urtero eta, kasu batzuetan, puntualki, "emandako zerbitzuaren inguruko asebetetzeari buruzko inkestak" egin izan dira.

Toki Administrazioako Departamentuak, NAPIren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, inkesta erabili izan du tresna gisa, Nafarroako toki entitateek dituzten prestakuntza-beharrizanak eta kalitate nahiz berrikuntza ekimenak aztertzeko.

Azkenik, Toki Administrazioako Departamentuak, Informazioaren Gizartearen Behatokiarekin lankidetzan, toki entitateen ekipamenduari buruzko inbentario bat egin du. Datuak eskuratzeko metodoa oinarritu da, halaber, toki entitateei eginko inkesta batean.

Jarduketa horietarako erabili ohi den kontusailaren izena da "Azterlanak eta lan teknikoak", eta 2276 kodea du.

2003an asebetetzeari buruzko inkesta bat egin zen, bezero ezkutuen metodologia erabiliz. Horren kostua 3.200 eurokoa izan zen, eta Navcontel enpresak burutu zuen.

2004an asebetetzeari buruzko inkesta bat egin zen, 012 Infocal zerbitzuko erabiltzaile erreal eta potentzialen lagin bat erabiliz. Horren kostua 4.000 eurokoa izan zen, eta Navcontel enpresak burutu zuen.

Beste asebetetze-inkesta bat ere egin zen, Barañaingo Udaleko lagin bat erabiliz, 012 Infocalek kudeaturiko inskripzio-kanpaina bat zela-eta. Horren kostua 1.200 eurokoa izan zen, eta Navcontel enpresak burutu zuen. Halaber, inbentario bat egin zen, informazioaren gizartearekin zeri-

kusia duen ekipamenduari buruzkoa. 4.840 euroko kostua izan zuen, eta Inicativas Innovadoras izeneko enpresak gauzatu zuen.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, Toki Administrazioiko Departamentuari atxikia dago, eta iritzi eta merkatuen azterlanen arloko CIES enpresaren bezeroetako bat da; enpresa horrek, urtean bitan, Nafarroako hedabideen audientziari buruzko azterlan bat egiten du. Gastu hori, 6.994 eurokoa 2005ean, ordaintzen da 22100 220001 6092 921500 kontusailetik –"Informaziobi-deen azterlanak"–.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari dagokionez, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat egin zuen, "Europako Batasunetik kanpoko etorkinen bilakera eta gaur egungo egoera Nafarroan. 2003ko inkesta." izeneko, eta 2005eko urtarrilean argitaratua.

Etorkinak gizarteratzeko planak, 2002an onetsia, esaten du azterlanak eta ikerketak egiten direla immigrazioari buruz, eta aipaturiko testuaren prestaketarako oinarri gisa hartu zen azterlanean bilduriko datuak sistematikoki gaurkotuko direla.

Azterlan horrek beste bati ematen dio jarraipena, 2000. urtean departamentu horrek jadanik finantzaturako bati hain zuzen, eta kasu hartan eskuraturiko datuak alderatzen ditu etorkinen familiariek Nafarroan gaur egun bizi duten egoerari dagozkionekin. Aurrekontua 78.111 eurokoa du, eta "Familiarren Behatokia" izeneko 910001-91110-4810-313000 kontusailean jasota dago.

Bestalde, "Nafarroan Europako Batasunetik kanpoko immigrazioak duen eragin demografiko, ekonomiko eta soziala" izeneko azterlana egin zen. Nafarroan etorkinak gizarteratzeko planak, 2002an onetsia, biztanle hartzaileak sentsibilizatzeko ekintzak jasotzen zituen, immigrazioari buruzko ikuspegi positibo bat sustatzeko.

Azterlan horren xedea zen biztanle hartzaileak informatzea immigrazioak Nafarroaren garapenean izan dezakeen (eta jadanik izaten ari den) eraginari buruz. Horregatik, beharrezkoa da, lehenik eta behin, etorkinek gaur egun egiten duten ekarpenari buruzko datuak edukitzea, bai eta haiek etorkizunean egiten duten ekarpenari buruzko proiektioak ere, oinarri gisa hartuz gaur egungo datuen azterketa eta iraganean etorkin-multzo garrantzitsuak hartu dituzten beste herrialde batzuekiko alderaketa. Aurrekontua 60.082,69 eurokoa zuen, eta "Familiarren Behatokia" izeneko 910001-91110-4810-313000 kontusailean jasota zegoen.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, bestalde, Nafarroako gazteriaren egoerari buruzko azterlan bat egin zuen, Nafarroako gazteen errealtatea ezagutzeko eta 2000. urtean eginiko azterlanarekin analisi diakronikoan sakontzeko. Azterlan horrek 16.208,64 euroko aurrekontua zuen, eta "Gazteriaren arloko jarduerak" izeneko 940003-95210-2269-323103 kontusailaren kargura egin zen.

Osasun Departamentuak inkesta bat egin zuen, Osasun Laguntza Aztertu eta Kontrolatzeko Zerbitzuaren bitartez, Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdiei buruz. Inkesta horrek ez zuen inolako kosturik izan. Bestetik, Lan Osasunaren Institutua Lan baldintzei buruzko bigarren inkesta egiten ari da, Foru Komunitatean lan osasunari dagokionez hobetu beharreko alderdiei buruzko ikuspegi zehatza lortze aldera. Inkesta hori abiapuntu gisa erabiliko da, erabakitzeke zein diren egin beharreko ekintza zehatzak, laneko arriskuen prebentzioa hobetu eta, azken batean, haien kopurua eta larritasuna mugatzeko.

Hezkuntza Departamentuak, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Demoscopia enpresari 2003an eskatu zion "2003ko Nafarroako euskararen azterketa soziolinguistikoa" egin zezala.

Nafarroako Estatistika Institutuak, zeina Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ardurapean baitago, Nafarroako 2003-2006 urteetako estatistika planari buruzko urriaren 28ko 28/2002 Foru Legean adierazitako inkestak egiten ditu.

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak, ISO 9002/1994 kalitate-sistema aplikatuta, aldiro inkestak egiten ditu, bertako zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen asebetetzearen norainokoa ebaluatze aldera. Inkesta horiek Departamentuko langileek eginak dira, eta ez dute inolako kosturik.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura-koak, Herrilan, Garraio eta Komunikaziokoak, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitakoak eta Kultura eta Turismo-Vianako Printzea Erakundeak ez dute inolako inkestarik eskatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko apirillean

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, merezimenduen baremoetan italiara baloratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak merezimenduen baremoetan italiara baloratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 11ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du merezimenduen baremoetan italiara baloratzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

1. Ikuspuntu formal hutsetik, italiara ez baloratzeari Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko prozeduretan, ebaluatu daitezkeen merezimenduetzat hartu ez izanaren ondorioa da, Nafarroako Gobernuak 2001eko otsailaren 5ean hartu zuen Erabakiarekin bat, eta horrek galarazten du merezimenduen artean agertzea deialdietan.

Bestalde, prozedura horietan baloratu beharreko merezimenduen elementuak edo baldintzak zehaztea zuhurtziarakotasun teknikoaren menpe

dagoen gaia da, erregelamenduzko araudia bera baita, legezko agindu batean xedatutakoa urratzen ez badu edo ordenamenduaren beste akats bat egiten ez badu, kasu bakoitzean ebaluatu daitezkeen merezimendu eta gaitasun printzipioekin lotutako inguruabarrak zehatz daitekeena.

Ildo horretan, galderak aipatzen dituen Europako Batasuneko hizkuntza ofizialean mintzatzen diren herrialdeetako populazioaren portzentajeak zerikusia du kasuan kasuko estatuetako populazioarekin, baina ez du informaziorik ematen Europako Batasuneko estatuetan hizkuntza bakoitzak duen erabilera eta ezagutza mailari buruz, eta horixe da hain zuzen Nafarroako Gobernuaren Erabakiak ezarritako irizpidea Foru Komunitateko administrazioan merezimendu gisa baloratu beharreko hizkuntzak zehazteko; bere izaeratik beregatik, baloraziorako elementu hori bat dator funtzio publikoan sartzeko merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin.

2. Adierazitako arrazoi horiengatik halaber, ez dago aurreikusirik italiaraz jakitea merezimenduetzat hartzea Foru Komunitateko administrazioaren lanpostuak betetzeko deialdien baremoetan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 27an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Bardeetan ingurumen hezkuntzako zentro bat paratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Bardeetan ingurumen hezkuntzako zentro bat paratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo andreak galdera egin du Bardeetan ingurumen hezkuntzako zentro bat paratzeari buruz. Hona

hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

- Printzipioz ez dut ezer proiektu horren aurka, baina, Bardeetan instalatuko den proiektu berri hori Arguedasko Senda Viva proiektuaren ordezkoa izanen al da?

Departamentuan ez dagoenez inongo espedienterik Bardeako Juntak sustatutako Los Aguilares zentroari buruz, ez dugu irizpiderik galderari erantzuteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 26an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, industriarako lurzorua gehitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak industriarako lurzorua gehitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 11ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du lurzoru industrial handitzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

a)

Eskualde mailan legegintzaldi honetan egiteko asmo ditugun jarduerak hauexek dira:

	Jarduketa	Azal. Gordina(m ²)
1	Lizarra aldeko jarduera ekonomikoetako eremua (Los Arcos)	456.000
2	Tuterako jarduera ekonomikoetako eremua (1. fasea)	600.000
3	Comarca-3ko jarduera ekonomikoetako eremua (Elortzibar)	2.100.000
4	Getzeko Ordokiko jarduera ekonomikoetako eremua	417.000
5	La Navari gehitutako (Tafalla-Erriberri) jarduera ekonomikoetako eremua	200.000
6	Rocaforteri (Zangoza) gehitutako jarduera ekonomikoetako eremua	210.000
7	Altsasu-Urdiaingo jarduera ekonomikoetako eremua	900.000

Aurrekoari udal jarduerak gehitu behar zaizkio; haien bideragarritasuna aztertu ondoren eta kasuan kasuko udalak hartutako konpromisoekin,

Nasuinsak eta udal ekimenak osotara edo zati batean kudeatuko ditu:

	Jarduketa	Azal. Gordina(m ²)
7	Cadreitako jarduera ekonomikoetako eremua	122.000
8	Faltzesko jarduera ekonomikoetako eremua	80.000
9	Agoizko jarduera ekonomikoetako eremua	274.000
10	Lizarrako jarduera ekonomikoetako eremua	400.000

Legegintzaldi honetan dagoeneko eraiki diren edo eraiki beharreko eremuak izan dira, aurreikuspenen arabera, 1etik 8ra bitarteko jarduketegi dagozkienak.

Jarduketa horiek gauzatzeko behar diren lurraz erosiko dira.

b)

Lanak gauzatzeko aurreikusirik dauden jarduketaren kostua 100 milioi eurokoa izanen dela aurreikusten da, eta ezin da gehiago zehaztu lurren kostuak ezagutu eta urbanizazio lanak kontratatu arte.

c)

Lurzoru industrialaren banaketa orekatua lortzeko irizpideak honakoak dira banaketa geografikoari dagokionez:

- Nafarroako geografia jarduera ekonomikoko 7 eskualdetan banatzea

- Eskualde bakoitzean eskualde mailako lurzoru industrialaren edukitzea, aurreikus daitekeen eskareri erantzuteko eskaintza egon dadin ahalegintzeko. Esaldi honetan laburbil daiteke: "Jarduera ekonomikoa ez dezan geldiarazi bideragarritasun ekonomikorako baldintza zentzuzkotan dagoen lurzoru industrialaren faltak"

Lurzoru industrialaren tipologiari dagokionez:

- Inbertsio zuzena (Nafarroako Gobernuarena edo sozietate publikoena) eskualdeko industrialdeen garapenean.

- Udalei aholkularitza teknikoa ematea jarduera ekonomikoa ebaluatzeko, edo/eta laguntza finantzarioa ematea udal jarduketak betetzeko proiektuetarako.

Oharra: Eskualdeko industrialdeak foru erkidegoaren mailako sustapenekoak dira (zuzenean nahiz sozietate publikoen bidez) eta udalez gaindikotako eraginekoak, eta udal industrialdeak, berriz, udal ekimenekoak dira, eta horietan asmo bakarra da udal mailako hirigintza kudeaketa egitea (industriak hiriguneetatik lekualdatuz edo udalaren garapen industrialaren aldeko kudeaketan euskarri gisa).

d)

Lehentasunezko jarduketak dira lurzoru industrialaren eskaintza mugatuagoa duten 7 eremuei lurzoru emateko xedea dutenak. Ildo horretan, lehentasunezko jarduketak dira 1. eskualdekoak (Atlantikoa) eta 3. eskualdekoak (Iruñerria).

e)

Eskualde mailako industrialdeei dagokienez, Burgiko Udalaren eskaera bat dago industrialde bat garatzeko udal horretan. Egun tramitatu gabe dago haren hirigintza planeamendua, ez daudelarik

ko argi bideragarritasun tekniko eta juridikorako baldintzak.

Bestalde, toki zehatz batzuetan lurzoru industrialia sustatzeko premia dagoela ikusi da, baina ez zaio eskaera espresik egin Industria Departamentuari: 1. eskualdean (Atlantikoa) eta 3. eskualdean (Iruñerria), lurzoruaren eskaera handiagoa da.

Eskualde mailakoak edo udalez gaindikoak diren jarduketa horietaz gain, udal ekimeneko industrialdeak garatzeko laguntza ekonomikoen eskaerak Industria Departamentuak, udal esparruko jarduera ekonomikoen eremuak sustatzeko laguntzei buruzko 2/97 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz urtero onesten dituen deialdien bitartez bideratzen dira.

Era berean, Nasuinsak erantzuten die udalek egiten dituzten eskaera guztiei; aurretiko protokoloak formalizatzen dira orduan, eta ondoren hitzarmenak izenpetu, jarduketak bideragarriak direla eta konpondu nahi den arazoarekin bat datozela egiaztatuz gero. Udal jarduketetako batzuk ezin izan dira bete ez direlako bideragarriak izan, eta beste kasuren batean industrialdearen sustapena udalak berak gauzatu du.

Oraingoz, Nasuinsak honako udal edo toki industrialde hauek sustatu ditu, kasuan kasuko udalekin hitzarmenak izenpetuz:

- Arguedas-Valtierra, Cabanillas, Izaba, Mélida, Mendabia, Milagro, Gares eta Ultzama.

Era berean, protokoloak formalizatu dira edo aurretiko azterlanak edo/eta proiektuak egiten ari dira honako udal hauekin:

- Ablitas, Antzin, Areso, Burgi, Zirauki, Cortes, Deikaztelu, Funes, Larraun, Leitza, Irunberri, Monteagudo, Tafalla, Baztan, Basaburua, Mendigorria, Artaxoa, Erroibar, Urrobiko Partzuergoa, Elizagorria, Olazti eta Cascante.

Kasuren batean uko egin bazaie udalek jarduera ekonomikoetako toki esparruko eremuak susta-

tzeko eskatu dituzten dirulaguntzei, legeria indarduneko irizpideak aplikatzearen ondorioa izan da (2/97 Foru Legean ezarritako betebeharrak eta baldintzak), eta horrek ez du eragozten udalak industrialdeak garatzeko aukera, egokitzen jotzen bada.

Era berean, Nasuinsak udal jarduketei buruzko azterlanak egin ondotik, emaitzak bideragarritasuna (teknikoa, ekonomikoa, ingurumen arlokoa, antolamendukoa eta abar) ukatzen bada, ez da baztertzen udal ekimenak edo pribatuak jarduketa horiek garatzeko aukera, egokitzen jotzen bada.

f)

Irizpideak dira e) galderari emandako erantzunean adierazitakoak, eta ulertu behar da gainera udalek egindako eskaera guztiei Nasuinsak ematen diela erantzuna, aurretiko azterlan beharrezko-
ei eta proiektuen prestaketari dagokienez, bai eta ondoren ere, hitzarmenak formalizatu; Industria Departamentuak, berriz, kontuan hartzen ditu eskaera horiek aipatutako 2/97 Foru Legean aurreikusi eta araututako laguntzak emateko urtero onesten dituen deialdien bidez.

g)

Ahal den gehiena, eskualdeko eremuen banaketak bermatu egiten baitu azpiegiturak lurralde osoan banatzea, eta horri esker kohesio handiagoa lortzen da garapenean, eta noski udal ekimenari trabarik jarri gabe, are gehiago, sostengua emanez ere batzuetan, udal industrialdeei laguntza emateari buruzko legeria oinarritzat harturik frogatzen denean proposamenak egokiak direla udal arazoetarako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian, bertako bizilagunek departamentu horren ardurapeko zerbitzuak egiaz izan ditzaten, zer jarduketa egin dituen edo egiteko asmoa duen jakiteko. Hona Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariaren erantzuna:

Departamentu honek ez du inolako erantzukizunik Buztintxuriko bizilagunei eman beharreko zerbitzuak, galderan aipatzen direnen modukoak, direla eta.

Zeharka bada ere, hirigintzako planifikazioaren arloko koordinazioa eskumen propioa da, hiri zerbitzu eta azpiegiturak modu egokian izatean eragina duena. Horri buruz esan daiteke Buztintxuriko kasuan departamentu honek garrantzi berezia eman ziola mugakide diren udaletako planeamen duekin ongi koordinatzeari. Departamentu honek emandako xedapenen testua erantsi diogu erantzunari, koordinazio horri buruzko zehaztapenak nabarmenduta. (1. eranskina: Azaroaren 18ko 1557/1999 Ebazpena, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusiak emana, eta uztailaren 23ko 1003/1999 Foru Agindua, uztailaren 23koa, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak emana).

Bestalde, departamentu honek lankidetzaren teknikorako harremana du mankomunitatearekin, eta horren bidez informazioa trukatzeko da zerbitzuak behar bezala planifikatzeko hirigintza garapenari

begira. Lankidetzaren etengabeko horren emaitza da garraio publikoko zerbitzuak modu egokian jartzea abian. Buztintxuriko kasuan, sektorearen garapena burutu baino askoz lehenago abian ziren alde horri bi lineak zerbitzua eman ziezaioten behar ziren ekintzak (ikusirik erantsirik mapak). Hona Mankomunitatearen txostenean ageri diren datu adierazgarriak:

“8. linea – Nafarroako Blanca plaza-Buztintxuri, apirilaren 11n jarri zen abian. Linea horrek Santa Luzia pasealekuan barna ematen du zerbitzua.

Ibilbideak, ikusi mapa

Ordutegiak:

Lanegunak: Buztintxuriri, lehena: 06:38;

azkena: 22:26;

12 minuturo

Larunbatak: Buztintxuriri, lehena: 06:40;

azkena: 22:25;

15 minuturo

Igande eta jai-egunetan: Buztintxuriri, lehena:

07:02; azkena: 22:22;

20 minuturo

16. linea – Berriozar-Noain-Beriain, jardunean eskualdeko garraioa abian jarri zenetik, 1999an (lehenago linea hau ere bazen, hiri arteko zerbitzu gisa eta, beraz, ezin zuen bidaiaririk eraman Iruñara barrura. Linea horrek Gipuzkoako etorbidean barna ematen du zerbitzua.

Ibilbideak, ikusi mapa

Ordutegiak:

Lanegunak: Berriozarren, lehena: 06:25;

azkena: 22:10;

15 minuturo

Larunbatak: Berriozarren, lehena: 06:40;

azkena: 22:15;

20 minuturo

Igande eta jai-egunetan: Berriozarren, lehena:

06:30; azkena: 22:15;

30 minuturo”

Erabilera mailari dagokionez, goiz da jakiteko Buztintxuriko zenbat erabiltzaile duen garraio publikoak, etxebizitzetara berriki joan baita jendea bizitzera, eta oraindik etxebizitza asko falta dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, irakurketa publikoaren mapa egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak irakurketa publikoaren mapa egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako irakurketa publikoaren mapari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Kultura eta Turismo Departamentuak, liburutegi publikoaren politikari dagokionez, lehentasunezko bi helburu ditu:

Lehendabizikoa, Nafarroako Liburutegia eraikitzea, proiektu saihestezina eta, hamarkada oso batean bideratzeko modurik izan gabe, orain hasi dena bide onean, orube egokia badugulako eta proiektu arkitektonikoa kontratatuturik dagoelako jadanik.

Eta lehentasunezko bigarren proiektua, Nafarroako irakurketa publikoaren mapari buruzkoa.

Liburutegien Zerbitzua lanean ari da Nafarroako irakurketa publikoaren maparen eta zerbitzu zorroaren prestaketan, liburutegiek eskaintzen duten kultur zerbitzua antolatu eta eraginkortasunez

nez planifikatzeko ezinbesteko tresna dela jabeturik.

Legegintzaldi honen hasieratik gaur arte lanak Nafarroako liburutegi publikoaren sistemaren egungo egoerari buruzko informazioa bildu eta sistematizatzera bideratu dira, ondoren diagnosi zorrotza egin ahal izateko.

Hurrengo fasea, aurreikuspenen arabera aurrean, bigarren erdialdean hasiko dena, irakurketa mapa zehaztekoa izanen da, liburutegiei buruzko foru legeak ezarritakoari jarraikiz.

Zeregin horretan arituko dira, lehenengo eta behin, Nafarroako Gobernuako Liburutegien Zerbitzuko arduradun teknikoak: zerbitzuko zuzendaria, Liburutegien Sareko atalburuak eta Liburutegi Nagusikoa, dauden lau ataletako buruak.

Irakurketa mapa osatzen joan ahala, liburutegien parte-hartze aktiboa eskatuko da, bai eta Nafarroako Kultura Kontseiluko batzorde eskudunarena, Nafarroako nahiz kanpoko profesional adituena eta Nafarroako nahiz kanpoko liburutegien zerbitzuarekin eta planifikazioarekin zerikusia duten entitateena ere.

Gaurdaino ez da beharrezkotzat jo departamentutik kanpoko giza baliabideak kontratatzea.”

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Buztintxuriko auzoberrian lehenbiziko etxebizitzak beren jabeei aurki emanen zaizkiela-eta zerbitzuak abiarazteari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Buztintxuriko auzune berrian zer jarduketa egin ditu edo egiteko asmoa du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, auzune horretako bizilagunek departamentu horren ardurapeko zerbitzuak egiaz izan ditzaten?

Lehenik eta behin adierazi behar dut ezen departamentu honetako Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiak nahiz Familiaren Zuzendaritza Nagusiak ematen dituzten zerbitzuak herritar guztientzat direla eta zentralizatuta daudela; beraz, galdera horretan aipatzen diren etxebizitzak jabeei ematea ez da muntaduna zerbitzu horiek emateari begira.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokionez, dituen eskumenak eta eginkizunak kontuan hartuz, ez da beharrezkotzat jotzen bera-

riazko beste jarduketa gehigarriak egitea, honako arrazoiengatik:

Institutu horrek kudeatutako prestazio eta programa guztiak, hala nola, funtsean, pentsioak (kotizazio gabekoak, alargunenak, LISMI, FAS, SOVI) eta gizarteratze arloko laguntzak eta programak (oinarrizko errenta, laguntza bereziak, familian eta gizartean integratzea babesteko laguntzak, gizarte enplegu babestua, enpresetan laneratzeko laguntzak, gizarteratze-etxebizitzaren programa, gizarte ekimeneko entitateentzako dirulaguntzak etab.), bai eta herritarrek aurkez dezaketen beste edozein gizarte eskaera, zuzenean Gizarte Ongizate Institutuaren bidez tramitatzen dira, edota oinarrizko gizarte zerbitzuen harrera eta orientazio programaren bidez.

Horrela, gogoratu behar da oinarrizko gizarte zerbitzuak sortzea, halakorik beharrezkotzat joz gero, kasuan kasuko udalari edo toki entitateari dagokiola; kasu honetan, Iruñeko Udalari, han baitago auzunea.

Beraz, udalak hartu beharko ditu, biztanle berriak etortzearen ondorioz antzemandako beharren arabera, biztanle horien gizarte beharrei erantzuteko neurriak; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen erakunde honek jarrai dezan orain arteko zerbitzuak eta prestazioak ematen.

Azkenik, eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari dagokionez, kirol instalazioak hornitze aldera hark egiten dituen kapital transferentziak gauzatu beharko dira kasuaren arabera egoki den dirulaguntza-deialdia tarteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko “haur-etxeak” izeneko zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko “haur-etxeak” izeneko zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du “haur-etxeak” deritzon zerbitzuari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- “Haur-etxe” horien kopuruari eta erabiltzailei buruz eskueran dauden datuak.

- Etxe kopurua: 12
- Erabiltzaile kopurua: 28 (2004ko abenduaren 31ko datua)
- Erabiltzaile kopurua, 2003ko maiatzetik 2004ko abendura arte: 46
- Epe horretan onartu ezin izan ziren eskaeren kopurua: 173

2.- Departamentuak horri buruz duen iritzia.

Iritzia ematerakoan, adierazi beharrekoa da ezen “haur-etxeak” izeneko zerbitzua kontratatu duten familia guztiek bete dutela haien asebetetze-maila neurtze aldera taxaturiko inkesta, eta horren emaitzarik azpimarragarrienak, 1etik 10era, honakoak direla:

- Zerbitzuari buruzko iritzi orokorra: 8’6
- Antolaketa eta koordinazioa: 8’6
- Giza baliabideei buruzko iritzia: 9
- Etxeak direla-eta erdietsiriko asebetetzea: 7’9
- Inkesta egin zaien familien % 100ek berriro ere kontratatuko lukete zerbitzua.
- Inkesta egin zaien familien % 100ek ahaide eta ezagunei gomendatuko liekete zerbitzua.

Zerbitzuaren zenbait alderdiri buruzko iritziari dagokionez, batez besteko puntuazioa (kontuan izanik 10 puntukoa zela eman zitekeen gehieneko puntuazioa) honako hau da:

- Zerbitzuaren kalitatea 9’2
- Hezkuntza-erakundeak 9’1
- Arreta pertsonalizatua 9’2
- Famili giroa ’3
- Hurbiltasuna 7’2
- Segurtasuna 9’3
- Ordutegiaren malgutasuna 8’3
- Lanbide-kualifikazioa 9’1
- Plazen berehalako eskuragarritasuna 8’1
- Urte osoan zeharreko zerbitzua (uda barne) 9’1
- Irabazi asmorik gabeko entitatea 7’2

Iritzi horiek aintzat harturik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak uste du zerbitzu oso mesedegarria dela, jadanik badagoenaren osagarri, eta erantzun bikaina ematen diola familiek duten malgutasun, kalitate eta profesionaltasun beharrari.

3.- Ea departamentuak asmorik ote duen zerbitzu hori mendialdean ere ezartzeko. Egitekoak diren ekintzak, aurrekontua, hasiera-uneari buruzko aurreikuspenak eta asmoen arabera zerbitzu hori zein herritan emanen den.

Une honetan, asmoa hauxe da: proiektua, zeina Europako Batzordeak “jarduketa egokitza” jo baitu, behin betiko sendoturik uztea, harik eta Iruñean eta Iruñerrian sorturiko 12 etxeetan autonomia funtziona dezan lortu arte. Halaber, prestaketa-lanak egiten ari dira proiektua beste eskualde batzuetara hedatzeko, horrelako baliabideen koka-leku izan daitezkeenetara, hain zuzen. Jadanik horri buruzko informazioa eskatu dute, eta bilerak egin dira Cintruénigo, Azkoien eta Milagroko udalekin; izan ere, udal horietan baliabide horretarako eskaera dagoela ikusi da.

2005. urte honetako planifikaziorako aurrekontua 129.000 €-koa da.

Iparraldeko eskualdeei dagokienez, aipaturiko zerbitzua ezartzeko eskualde aproposa dela jot-

zen dugu, eta bertan sortzen den eskariaren zain gaude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, banderak masta erdian paratzeko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak banderak masta erdian paratzeko irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 11ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du banderak masta erdian paratzeko irizpideei buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna:

Ez dago berriazko araudirik foru administrazio-oko eraikinetan banderak masta erdian paratzeari

dagokionez. Erabaki hori, batzuetan, Gobernuko lehendakariak sinaturiko foru dekretu bidez dolu ofizialeko egunak deklaratzearen ondorio izan ohi da, eta beste batzuetan ez, ordea. Hain zuzen ere, baiezkoa eman zaio, berriki, Europar Batasunak eginiko eskaera bati, Asiako hegoekialdean milaka lagun hil zituen tsunamiaren biktimen omenez banderak masta erdian paratzekoari.

Ostiral Santuko ospakizunak direla-eta Nafarroako Jauregian banderak masta erdian paratzea antzinatiko tradizioa da, protokolo-zerbitzuek betetzen dutena, egun horretan Iruñeko kaleetatik egiten den prozesioaren ohiko ibilbidean kokaturik baitago eraikin hori. Tradizio hori errespetatu egin dute trantsiziotik gaurdaino gure Komunitatean izan diren gobernu demokratiko guztiek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko apirilean

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, antzutasuna diagnostikatua izan eta itxaron zerrendan dauden emakumeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak antzutasuna diagnostikatua izan eta itxaron zerrendan dauden emakumeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du antzutasuna diagnostikatua izan eta itxaron zerrendan dauden emakumeei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- 2005eko martxoaren 3an, gure Komunitateko 189 emakume daude laguntza bidezko ugalketa tekniketarako itxaron zerrendan.

2.- Osasun Departamentuak lehentasun gisa jodu emandako zerbitzuaren kalitatea, batez ere laguntza bidezko ugalketa bezain teknika zehatzetan.

Zenbait teknikatan, kalitatearen estandarrak betetzeko beharrezkoa da jomuga-populazio jakin bat izatea. Donostiako Quirón klinikak alde handiz betetzen ditu laguntza bidezko ugalketa tekniken arloko zerbitzua emateko lehiaketa publikoko klausula teknikoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Beteluko zahar-etxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak Beteluko zahar-etxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du Beteluko zahar-etxeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1- Zergatik eta zer irizpideren arabera zahar-etxe 45 postuetatik bost besterik ez da itundu?

Ez dakigu zein den galdera horren zergatia; izan ere, gaur egun ez dago Beteluko zahar-etxearekin inolako posturik ituntzearen aldeko ezein erabakirik.

2- Eskualdean ba al da "egiazko beharrik" eskatu duten udalekin –Leitza, Goizueta, Areso, Arano, Larraun, Lekunberri, Araitz, Betelu, Basaburua eta Imotz– postuak ituntzeko? Zahar-etxeetako postuetatik, zenbat dira publikoak eta zenbat pribatuak? Zenbat dira herri horietan dauden itundutako postuak?

Puntu horiei buruz, honako informazio hau ematen digu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan dagoen dokumentazioak zahar-etxeetako postu bat eskatu duten eragin-eremuko zaharrei buruz, bai eta beste zahar-etxe batzuetako postu batean daudenei buruz ere:

- Leitzako bi pertsona daude itunduriko egoitza lagunduko postuetan, "Amma Mutilva" eta "San Adrián" zahar-etxeetan.

- Leitza eta Beteluko bi pertsonak egoitza lagunduko postua eskatu dute, eta itxaron zerrendan daude. Biei prestazio ekonomikoa ukatu zaie, baliabide ekonomikoak badituztelako.

- Leitzako pertsona batek egoitza psikogeriatrikoko postua eskatu du, eta balorazio prozesuan dago.

- Leitzako pertsona batek bere kasa balia dai-tezkeen pertsonentzako egoitza postua eskatu du, eta itxaron zerrendan dago. Prestazio ekonomikoa ukatu zaio, baliabide ekonomikoak badituelako.

Zaharrentzako egoitza-posturik ez dago, ez publikorik ez pribaturik ere, galderan aipatzen

diren herrietan, bertan ez baitago zahar-etxerik, Betelun izan ezik, non egoitza-postuak pribatuak baitira.

3.- Postu itunduen kopurua justifikatzen duen txosten teknikoa eskuratu nahi dut.

Dokumentu horren kopia erantsi dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Nafarroako Unibertsitateko katedrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Nafarroako Unibertsitateko katedrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo andreak galdera egin du, jakiteko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Unibertsitatearen zenbat

katedra finantzatzen dituen. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuko aurrekontuaren kargura, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Unibertsitatearen katedra bat finantzatzen du: "Nafarroako ondarea eta artea" katedra.

Katedra hori eratzea erabakitzen duen hitzarmeneko testuari jarraikiz, "Nafarroako ondarea eta artea" katedrak 120.365 euro jasoko ditu 2005. urterako aurrekontuen kargura, 120.365 euro, 2006ko aurrekontuen kargura, eta 120.365 euro, 2007ko aurrekontuen kargura.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, “Oinarrizko gizarte zerbitzuak” aurrekontuko lerroan kreditua handitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak “Oinarrizko gizarte zerbitzuak” aurrekontuko lerroan kreditua handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du “Oinarrizko gizarte zerbitzuak” izeneko kontusailean kreditua handitzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.tik 4.era. Kopuru hori al da Ekonomia Departamentuak aurrezten duena, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarteratze-etxebizitzak dituzten udal guztiei bidalitako agindua dela-eta, zeinean esaten baita etxebizitza horien erabiltzaileek ordaintzen duten alokairu-prezioa nabarmen igo behar dela? Zenbat udali eman zaie agindu hori? Zehatz bitez udalen izenak. Zer errenta ordaintzen zuten etxebizitza horien erabiltzaileek? Zenbateko errenta ordaindu behar dute gaur egun? Zehatz bitez udal bakoitzeko datuak.

Gizarteratze-etxebizitzaren programa, zeinaren xedea baita etxebizitza duina eskuratzen laguntzea gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboek, laguntza ekonomikoak eman ez eta prozesu guztian zehar sozialki lagun eginez, irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuan arautua dago, IV. kapituluan. Programa hori gauzatzen dute Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentu honek. Kudeaketa, ordea, gizarte-ekimeneko entitateek egiten dute, Nafarroako Gobernuarekin urtero lankidetzahitzarmenak sinatuz.

Beraz, udalei ez dagokie programa honen esparruan zuzeneko ezein jarduketa egitea; horrela, bada, ez da bidezkoa pentsatzea inolako agindurik, lehendabiziko lau galderetan adierazitako zentzukurik ez eta beste inolakorik, eman izan denik Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentu honetatik.

5.- “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko kontusailean, zer jarduera egitea ez da beharrezkoa? Ekintzei ez bazaie murriztapenik ezarri, aurrekontuetan gehiegizko kopurua jaso al zen? Zer jardueratarako kopuruak ziren aurrekontuetan gaizki jasotakoak? Zergatik?

Gai horri dagokionez, adierazi beharra daukat ezen Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak etorkinentzat egiten edo sustatzen dituen berariazko jarduketan multzoa kontusail honetatik finantzatzen dela: “etorkinak gizarteratzeko sostengu programa”. Laneratzeko ibilbide banakatuak garatzeari dagokionez (ijitoen gutxiengo etnikoari zuzendurikoekin batera), kontusail honetatik: “dirulaguntza orokorra, 3. helburua-Europako Gizarte Funtsa”. Etorkinekin gauzaturiko gainerako jarduketa inesperezifikoa modu normalizatuan egiten dira, gainerako biztanleekin.

“Oinarrizko gizarte zerbitzuak” kontusailera eginitako 105.000 €-ko lekualdatzea egin ahal izan da, hain zuzen ere, 2005erako aurrekontuetan, Parlamentuko tramitean, kontusail berri bat ezarri zelako, “etorkinei laguntza emateko zentrorako dirulaguntza” izenekoak. Hasierako asmoetan ez zegoen kreditu-xedapen gehigarri horrek, aurrekontuetan jasoak zeuden jarduketetatik bakar bat ez murrizteaz gain, haiek zabaldu eta baita hasiera batean defizita zeukaten beste kontusail batzuk hein batean estaltzea ere ahalbidetzen du. Horrela, bada, aurrekontua ez zen berez ez gehiegizkoa ez eta eskasa izan; kontua da Parlamentuan negoziaturiko zuzkidura gehigarria izan zela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 6an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Xabierren harrera zentro bat sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Xabierren harrera zentro bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Xabierko bisitariari harrera egiteko zentroarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Xabierko Udalak proposamen bat aurkeztu dio departamentuari, turismoko harrera-zentro bat

ezartzekoa. Une honetan, proposamen hori analisi-fasean dago.

Nolanahi ere, ez da eskualdeko landa-etxeetan, aterpetxeetan eta hoteletan erreserbak egiteko zentral bat.

Proposamena aztertu bitartean, ez da elkarrizketarik izan beste ezein udalekin.

Osagarri modura adieraz daiteke Kultura eta Turismo Departamentuak asmoa duela, San Franzisko Xabierkoaren bosgarren mendeurrenaren ospakizuna dela-eta, bisitariari laguntza emateko neurri-multzo bat abiarazteko; besteak beste, eta Turismoa sustatzeko planaren esparruan, informazioa ematea erkidegoko produktu turistikoari buruz eta Nafarroako beste eskualde batzuei buruz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Uhartan arte garaikidearen zentro bat eraikitzeke proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo andreak Uhartan arte garaikidearen zentro bat eraikitzeke proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du, Uhartan arte garai-

kidearen zentro bat eraikitzeke proiektuari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Aurretiatzko premisa gisa, kontuan izan behar da ezen Uharteko arte garaikidearen zentroa herriko udalak berak sustaturiko ekimena dela.

Kultura eta Turismo Departamentua, Vianako Printzea Erakundea, betidanik egon da interesatua Nafarroan oro har kultura garatze aldera sustaturiko ekimen guztietan, eta, zehazkiago, Uharteko Udalak sustaturiko arte garaikidearen zentroan.

Izan ere, Kultura zuzendari nagusiak zenbait informazio-bilera egin izan ditu udal horretako ordezkariarekin, eta horietan, aipaturiko proiektuaren berri eman izan zaio. Are gehiago: museo horren

egoitza izanen den eraikinaren proiektu arkitektonikoa erabakitzeke lehiaketako epaimahaiko kide izan zen zuzendari nagusi hori.

Oraingoz, Nafarroako Gobernuak ez du laguntza ekonomikorako eskaririk jaso Uharteko Udaltik, eta entitate horrek ez du parte hartu departamentu honek eginiko ezain dirulaguntza-deialditan.

Bestalde, eta Nafarroako Arte Garaikidearen Zentroari dagokionez, zehaztapen- eta egokita-

sun-azterketaren fasean dago proiektua, beste batzuetan ere jadanik esan bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Ubarmin klinikan garuneko kalteen unitatea sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Ubarmin klinikan garuneko kalteen unitatea sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Ubarmin klinikan garuneko kalteen unitatea sortzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun kontseilariak maiatzaren 25ean emandako 60/2003 Foru Aginduaren bidez Ubarmin klinikan garuneko eta bizkarrezur-muineko kalteen unitatea sortu zen. Osasun zuzendari nagusiaren urriaren 17ko 1411/2003 Ebazpenaren bidez lan talde tekniko bat sortu zen, unitatea abian jartzeko.

Lan talde tekniko horren ondorioak, besteak beste, hauexek izan dira:

1.- Errehabilitazio neurologikorako plan bat abiarazi beharra, zeinean errehabilitazio goiztiarra funtsezkoa baita gaixo horien osasunean emaitza hobekak lortzeko. Horrela, gaixoa fase akutuko errehabilitazioa jasotzen hasiko da ospitaleratua dagoen zentroan. Fase akutuen ondokoan, hau da, haren egonkortze neurologikoa lortu ondoren, ospitaleratze-araubidean dauden gaixoen beha-

rezkoa duten errehabilitazioa egingen da Ubarmin klinikako errehabilitazio neurologikoren unitatean.

Errehabilitazio arlo anitzeko talde batek egingen du. Errehabilitazio neurologikoko unitateak erreferentziako hirugarren mailako unitate izaera izanen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osorako.

Sare osoko osasun zentro eta zerbitzuen koordinazioak bermatu beharko du zaintza-eginkizun guztietan ekitatez jokatzeko, adosturiko eta ebidentzia zientifikoko oinarrituriko jarduketaren irizpideen protokolizazioaren bitartez.

2.- Gure erkidegoa ez da iristen beharrezkoa den gutxieneko kasuistika biltzera, behar adinako kalitatez tratatu ahal izateko burezurreko eta entzefaloko traumatismo (bizkarrezur-muineko lesioa barne) baten ondorio larriak eta moderatuak dituzten gaixok, eta iritzia da gaixo horiei zerbitzua ematen jarraitu behar zaiela gaur egun egiten ari den moduan, erreferentziakoak diren zentro espezializatuetan (Institut Guttman-Badalonako neuroerrehabilitazioko ospitalea eta Toledoko paraplegikoentzako zentroa).

Errehabilitazio Neurologikorako Unitatea martxan jartzen ari da pixkanaka, berriki ezarri den Ictusaren Unitatearekin lotura estua duela. Horrela, lan talde teknikoaren adostasunez prestatutako prozedurak eta ibilbideak, ictusa jasandako gaixoen ebaluazio, biderapen eta arlo anitzeko tratamenduari dagokienez, jadanik ezarrita daude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Buztintxuriko osasun premiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Buztintxuriko osasun premiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Buztintxuriko osasun premiei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Barrutiak ezartzen dituen legearen arabera, Buztintxuri Sanduzelaiko oinarrizko osasun barrutian sartua dago. Horregatik, barruti horretako biztanleei Sanduzelaiko Osasun Etxean ematen zaie zerbitzua.

2003ko apiriletik aurrera, Sanduzelaiko Osasun Etxeko plantilla honako gehikuntza hauen bidez hedatu da: Familiako mediku bat, erizain bat eta administrari bat lanaldi erdian eta arratsaldeko ordutegian, Buztintxurira bizitzera joaten den populazio heldua haiei esleitzeko eta, halaber, gainerako lankideei laguntzeko.

2004. urtearen amaieratik aurrera biztanle berrien etorrera gaur egun arte pixkanaka handitzen joan da. Une honetan, Buztintxuriko 421 per-

tsionak medikua daukate Sanduzelaiko osasun etxean, eta haietatik 343 helduak dira.

Espazio fisikoaren ikuspegitik, gaur egun profesional bakoitzak kontsulta bat dauka bere eginkizunak betetzeko. Ez dute espazio bera inoiz ere partekatzen; izan ere, arratsaldeko lanaldian diharduten profesionalak dituzten espazioak bereizita daude goizekoek dituztenetatik.

Pediatría arloko profesionalen lan zama helduen arlokoena baino arinagoa zen eta da; horren ondorio gisa, Buztintxuriko haurrei zerbitzua ematen dietenak dira Sanduzelaiko osasun etxean goizeko ordutegian jadanik bazeuden pediatriako bi unitate oinarrizko.

Helbidea Buztintxurin duten biztanleak gehitzen direnean, horren arabera gehitzen joanen dira barruti horretan beharrezkoak diren baliabide profesionalak, arratsaldeko ordutegian.

2003ko apirilaz geroztik eta gaur egun arte, beharrezkoak ziren ekintzak burutu dira bermatzeko Buztintxuriko biztanle helduek eta haurrek Sanduzelaiko osasun etxetik behar bezalako zerbitzua jasotzen dutela.

Azkenik, 2005. urtean zehar, norbanakoaren osasun txartelak gehitzearen ondoriozko plantilla-gehikuntza dela-eta egin beharreko aurrekontu-gehikuntzak eginen dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko X izpietarako eta eskanerretarako itxaron zerrendei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Tuterako Reina Sofia ospitaleko X izpietarako eta eskanerretarako itxaron zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Reina Sofia Ospitalean X izpietarako eta eskaneerretarako dagoen itxaron zerrendari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Arloko zuzendaritzaren irizpidearen arabera, Arloko Erradiologia Atalari dagokio ordenagailu bidezko tomografia axialaren (OTA) itxaron zerrenda kudeatzea. Ospitaleko Erradiologia Atalaren eginkizunak dira –eta batzuetan berak bakarrik egin ditzake– esplorazioei lehenatasuna ematea patologiaren arabera, batzuetan gaur egungo azterketak eta aurreragokoak alderatzea diagnostiko egokia egiteko eta abar. Soilik ospitaleko ata-

lak ezin badio aurre egin itxaron zerrendari, behar den epean eta moduan aztertuko da ospitalez kanpoko baliabideak erabiltzeko aukera.

Bestalde, esan behar da erradiologiako azterketen jarduera eta eskaera aztertzen ari direla, kasua bada, dauden baliabideak egokitu eta/edo aldatzeko.

2.- 2005eko martxoaren 29tik ordenagailu bidezko tomografia axialak (OTA) egiten ari dira arratsaldetan. Aipatu egunetik gaur arte 153 azterketa egin dira guztira. 2005eko martxoaren 31n 677 pertsona zeuden itxaron zerrendan; aldiz, apirilaren 20an 560 zeuden. Horrenbestez, itxaron zerrenda murriztu egin da aldi horretan, 117 pertsona gutxiago daude, hain zuzen.

3.- 2002. urtean 315 ordu erabili ziren ordenagailu bidezko tomografia axialak (OTA), mamografiak eta ekografiak egiteko programa bereziak gauzatzeko. 2003. urtean 63 ordu erabili ziren soilik ordenagailu bidezko tomografia axialak (OTA) egiteko. 2004. urtean, berriz, 175 ordu erabili ziren ordenagailu bidezko tomografia axialak (OTA) egiteko programa berezia gauzatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

Galdera, Mendabian Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremu-ko ardandegi bat paratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Deskarga andreak Mendabian Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremuko ardandegi bat paratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu

dut. Galdera 2005eko maiatzaren 9ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du jakiteko ea egia al den Nafarroako Gobernuak eskaintzak egin dizkiola Griñongo markesa den Carlos Falcó ardogileari Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremuko ardanegi bat paratze-ko Mendabian. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez dio inongo eskaintza zehatzik egin Carlos Falcó jaunari. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, nekazaritza eta elikadura sektoreko enpresak ezartzea eta sektore horretako inbertsioak sustatzea helbu-

ru, ikusita enpresaburu horrek informazioa eskatu zuela eta Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuan ezartzeko interesa zuela, informazioa eman zion horrelako inbertsioetarako laguntza-araubideari buruz eta eskueran jarri zion eremu horretako edafologiari, klimatologiari eta nekazaritza baldintzei buruz departamentu honetan dugun informazioa.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 9an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, Orvinan dagoen liburutegia ixteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Orvinan dagoen liburutegia ixteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Txantreako liburutegi publiko berriarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak 2004ko irailaren 16an sinatu zuten hitzarmena du araubide Txantreako liburutegi berriak. Agiri horretan, ardurakidetzaren eta baterako finantzaketaren printzipioak oinarri, aldeek zenbait gaietan zituzten betebeharrak ezarri ziren: eraikuntza, altzariz hornitzea, ekipamendu informatikoa, dokumentuen funtsa, mantentze-lanak eta liburutegiko langileak.

Liburutegi publiko bat ixtea, Orvinakoa kasu honetan, eta instalazio berri batzuetara eraman eta han irekitzea, Txantreako liburutegi berriari alegia, oso konplexua da teknikoki. Zailtasun handiena da bilduman garbiketa egitea, eta bilduma han-

ditzea eta egokitzea; kasu honetan, ia 22.000 dokumentu dira, sistema informatikoan sartu eta liburutegian leku jakin batean jarri beharrekoak, bermatuta egon dadin eskueran egonen direla, berrituko direla eta zainduta egonen direla.

Egungo lan erritmoarekin jarraituz gero, eta eragozpenik ez bada –hala nahi lukete departamentuak eta Iruñeko Udalak –, Txantreako liburutegia aurtan irekiko dela aurreikusten dugu.

Pentsatzekoa da liburutegi berriak, Txantreako auzoan duen kokagune estrategikoa dela-eta, bai eta instalazioen kalitateagatik eta duen liburuaren nahiz ikus-entzunezkoen bilduma aberatsagatik, erabiltzaile asko izanen dituela.

Nafarroako Gobernuak, plantilla organikoan, liburutegiko bi arduradun ditu Txantreako liburutegi publikoan aritzeko; 32351 eta 32254 lanpostuak dira, hain zuzen ere. Bi profesional horiek orain arteko instalazioetan izan dituzten eginkizun berak izanen dituzte

Bestalde, hitzarmenaren 4. idatz-zatian ezartzen denez, “Iruñeko Udalak zerbitzua hobetzen lagun dezake liburutegia langile laguntzailez hornituz”.

Horrela, departamentua negoziatzen ari da Iruñeko Udalarekin, udalak liburutegiko laguntzaileak kontratatu eta horiek Nafarroako Gobernuaren ardurapeko langileei lagun diezaieten, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetze aldera, hau da, ordutegia luzatzeko eta zerbitzu berriak emateko.

Horri dagokionez, aipatu behar da udalek laguntzaileak jarri izan dituzten liburutegietan ordutegi luzeagoa eskaini ahal izan zaiela erabilitzaileei, astelehenetik ostiralera goizez eta arratsalde zuzen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-

ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 10ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Liburutegi Nagusi berriaren lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Liburutegi Nagusi berriaren lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Liburutegi Nagusiarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen 16. artikuluan Nafarroako Liburutegiaren zeregina zehazten da:

Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena da eta Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena, –aldizkakoa izan zein ez, ikusizkoa, soinuakoa eta multimedia, inpresoa edo beste edozein euskarritan dagoena barne.

Aurrerago, 3. idatz-zatian, Nafarroako Liburutegiaren beste eginkizun batzuk zehazten dira.

- Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da.

- Nafarroarekin zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak

baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

- Nafarroako bibliografia egitea.

- Nafarroako ondare bibliografikoaren kontserbazioaz arduratu eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa Nafarroan prestatzeko lanak koordinatzea.

- Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren ordezkari izatea Espainiako liburutegien sisteman eta beste liburutegi sistema batzuetan.

- Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren jardunbidea egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerakoak.

Azken urtean Iruñeko Udalarekin akordio batera iritsi eta hark Mendebaldeko 1297. lurzatia lagako du.

Lurzati hori estrategikoki dago kokatuta, kulturarako eta aisiarako aukera handiak dituen leku batean; irisgarritasun ezin hobea du eta proiektu handi eta eraginkorra gauzatzeko erraztasun guztiak ditu. Horrela, gogoratu behar da 8.433 metro koadroko azalera duela eraiki ahal izateko, orain arteko eskaintzarik handienaren halako lau.

Hurrengo urratsa proiektuaren arduradunaren administrazio kontratua egitea izan da, eta, horretarako, 2001ean Nafarroako Liburutegirako egin zen ideia-lehiaketako finalistei deitu behar izan zaie.

Aldez aurretik, departamentuko zerbitzu teknikoek Nafarroako Liburutegiaren baldintza tekniko zehatzak ezarri zituzten, azalerei, erabilerei, zerbitzuei eta azpiegiturei dagokienez. Plegu hori oinarri, bost hilabeteko epea eman zitzaizen finalistei eskaintza teknikoak aurkez zitzaizten. Epe hori otsailaren 25ean amaitu zen.

Kontratazio mahaiaren eztabaiden ondoren, aurtengo martxoaren 31n, Nafarroako Liburutegia-

ren oinarrizko proiektua Manuel Ferrer Sala arkitektoari esleitzen dion ebazpena sinatu da.

Kontratu hori arautzen duen klausula administratiboaren pleguak bederatziz hilabeteko epea ezarri du oinarrizko proiektua aurkezteko.

Dagoeneko egin dira lehenengo urratsak Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentziarekin, zehazteko lurzatia nola hornitu eta nola urbanizatu.

Arkitektoa eta departamentuko teknikariak batera aritu dira horrelako kultur azpiegituretan adituak direnekin hizketan, eta Nafarroan egiten denaren antzeko instalazioak ikusten aritu dira. Aurreko guztiari, bestalde, Nafarroako Kultura Kontseiluaren parte-hartzea gehitu behar zaio, bai eskaintza teknikoaren hautaketa fasean bai hasierako programaren berrikusketan.

Hurrengo bi hilabeteetan, lanak, bereziki, hurrengoetara bideratuko dira: orubearen azterketa topografikoak eta geoteknikoak egitera, proiektuaren inguruko konpainia eta zerbitzuei buruzko informazioa biltzera eta galdetutako adituek nahiz departamentuko zerbitzu teknikoek aipatutako egokitzapen programatikoak egitera.

Udatik aurrera, egiturei buruzko laguntza teknikoaren arloan, instalazioei buruzkoan, egiten da bereziki lan, eta batik bat energia instalazioen efizientzian jarriko da arreta; gero, eraikuntza elementuei eta proiektuaren irudikatze elementuei helduko zaie.

Horrek denak oinarrizko proiektua osatuko du, heldu den urrirako prest egon beharko baitu.

Jarraian, klausula administratiboaren pleguko 9. idatz-zatian jasota dagoenez, behin oinarrizko proiektua aurkeztuta, obra gauzatzeko proiektua kontratatu eta prestatuko da.

Horren ondotik, obrak adjudikatzeko espediente administratiboa jarriko da abian.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Jorge Oteiza Museoa Fundazioaren langileen plantillari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Jorge Oteiza Museoa Fundazioaren langileen plantillari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Jorge Oteiza Museoko langileen plantillarekin zerikusia daukaten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Erantsitako orrietan (3 orrialde).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 10ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

1. Oteiza Museoko gaur egungo langile-plantilla:

LANGILEAK	Lanpostua (Eginkizunen deskribapena)	ESKATURIKO LANBIDE- KALIFIKAZIOA	KONTRATU MOTA	KONTRATUAREN IRAUPENA
1	Komunikazio-arduraduna (konfiantzazko hautaketan zuzendariorde gisa hautatua) Eginkizunak: Hedabide nazional eta nazioartekoekin harremana lantzea Fundazioari bultzada ematea gizartean. Protokoloa. Argitalpenak eta web gunea koordinatzea. Lan taldea koordinatzea.	Informazio zientzietako edo gizarte zientzietako titulazioa. Antzeko eginkizunetan esperientzia izatea. Arte garaikideari buruzko ezagutza luze-zabala. Ingelesa menderatzea; euskara eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere balioetsi zen.	Mugagabea	Mugagabea
1	Artxibozain eta dokumentalista Eginkizunak: Jorte Oteizaren dokumentu-ondarea eta argazki-artxiboa zaintzea. Museoko dokumentazio-zentroaren zuzendaritza. Liburutegiaren kudeaketa.	Bibliotekonomiako, artearen historiako edo arte ederretako titulazioa Bibliografia-funtsen eta dokumentu-artxiboan katalogazio eta kudeaketan esperientzia Ingelesa menderatzea; euskara eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere balioetsi zen.	Mugagabea	Mugagabea
1	Kontserbatzailea Eginkizunak: Jorge Oteizaren ondare artistikoa (eskultura eta margoen bilduma) zaintzea. Bilduma katalogatzea. Maileguak ikuskatzea aldi baterako erakusketetan.	Museografiako, artearen historiako edo arte ederretako titulazioa. Esperientzia izatea erakunde publiko edo pribatuaren bilduma iraunkorren kontserbazioan eta aldi baterako erakusketan antolaketan. Arte garaikideari buruzko ezagutza luze-zabala. Ingelesa menderatzea; euskara eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere balioetsi zen.	Mugagabea	Mugagabea
1	Didaktikako arduraduna Eginkizunak: Museoaren hezkuntza-programak prestatzea. Bisita gidatuak koordinatzea.	Hezkuntza artistikoko, artearen historiako, arte ederretako edo giza zientzietako titulazioa Hezkuntza, arte eta kultura arloko programen kudeaketan esperientzia izatea. Euskara menderatzea; beste hizkuntza batzuk jakitea balioetsi zen.	Mugagabea	Mugagabea
1	Zuzendaritzako idazkaria Eginkizunak: Telefonoari erantzutea eta korrespondentzia. Zuzendariaren lan-agenda eta bidaiak antolatzea.	Idazkari, ISSA edo antzeko titulazioa. Zuzendaritzako idazkaritzan esperientzia izatea. Arte-ezagutzak balioetsi ziren. Ingelesa menderatzea; euskara eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere balioetsi zen.	Mugagabea	Mugagabea
1	Finantzen arduraduna Eginkizunak: Jorge Oteiza Museoa Fundazioaren aurrekontuak egitea, balantze-kontrolaz eta alderdi ekonomiko eta finantzario guztiez arduratzea.	Ekonomian edo enpresa-zientzietan lizentziatua izatea	Mugagabea	Mugagabea

LANGILEAK	Lanpostua Eginkizunen deskribapena	ESKATURIKO LANBIDE- KALIFIKAZIOA	KONTRATU MOTA	KONTRATUAREN IRAUPENA
1	Zuzendaria Eginkizunak: Zentroa ordezkatzea, proiektu museologikoa taxutu eta abiaraztea, jardueren definizioa eta ikerketa; museoaren eta bertako eraikin eta instalazioen funts berekiak kontserbatu, antolatu eta kudeatzea; ardurapean ipintzen zaizkion baliabideak kudeatzea, langileen zuzendaritza-lanak eta museoko zerbitzuen funtzionamendu ona xede dituztenak; Fundazioaren zuzendaritzako patronatuarekin harremanetan egotea.	Konfiantzazko izendapena	Aldi baterako	2006-12-31
1	Dokumentazioko laguntzailea Eginkizunak: Bibliografiaren katalogazioa egitea eta prentsa-aldizkaria deskargatu eta banatzea.	Goi mailako tituluduna, dokumentazioan prestakuntza duena. Euskara eta/edo beste hizkuntza batzuk jakitea balioetsi zen.	Behin-behinekoa, produkzioari dagozkion arrazoiengatik	2005-07-05
1	Kontserbazioko laguntzailea Eginkizunak: Laguntza-eginkizunak, museoaren funtsen kudeaketa, dokumentazio eta kontrolarekin zerikusia daukatenak.	Lizentziatura artearen historian. Euskara eta/edo beste hizkuntza batzuk jakitea balioetsi zen.	Aurrekoa bezalaxe	2005-08-01
1	Gida. Eginkizunak: Bisita gidatuak egitea eta, eskola-kanpaina, hezitzaile-eginkizunak betetzea.	Lizentziatura Arte Ederretan edo Artearen Historian. Euskara eta/edo beste hizkuntza batzuk jakitea balioetsi zen.	Lan eta zerbitzu jakin baterako (2005eko eskola-kanpaina)	2005-06-30
1	Gida (Idem)	Lizentziatura arte ederretan edo artearen historian. Euskara eta/edo beste hizkuntza batzuk jakitea balioetsi zen.	Aurrekoa bezalaxe	2005-06-30
1	Gida (Idem)	Lizentziatura arte ederretan edo artearen historian. Euskara eta/edo beste hizkuntza batzuk jakitea balioetsi zen.	Aurrekoa bezalaxe	2005-06-30

2. Zuzeneko kontratu-harremanik izan gabe Oteiza Museoan diharduten langileen plantilla:

Kudeaketa eta efizientzia hobetze aldera, Oteiza Museoa Fundazioak erabaki du museoko zerbitzu funtzionaltako batzuk hiru enpresa espezializaturik kontratatzea:

1. Congresos Navarra, S.L.
2. Prosegur
3. Limpiezas Amadoz

1. Congresos Navarra, S.L.: Asteartetik ostirale- bitartean, 8 areto-zaindari ekartzen ditu, eta aste-bukaeretan eta jai-egunetan 9, Oteiza Museoan zaindari/informatzaile eginkizunetan aritzeko

eta sarrerak eta produktuak saltzeko. Congresos Navarra arduratzen da langile horien prestakuntzaz, Oteiza Museoarekin elkarlanean. - Kontratua- ren iraupena: 6 hilabete, 2005eko ekainaren 30era arte.

2. Prosegur: 2 zaindari ekartzen ditu. - Kontra- tuaren iraupena: Urtebete, 2006ko martxoaren 1era arte.

3. Limpiezas Amadoz: 3 pertsona ekartzen ditu, asteartetik igandera lan egiten dutenak, 06:00etatik 10:00ak arte.

Zerbitzu horiek kontratatzeko 2005. urtean aurreikusi den aurrekontua 647.000 eurokoa da.

Galdera, baliatzen direnentzat eta lagunduak direnentzat egoitza guztietako toki kopuruei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak baliatzen direnentzat eta lagunduak direnentzat egoitza guztietako toki kopuruei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du baliatzen direnentzat eta lagunduak direnentzat Nafarroako egoitza guztietan dauden postuei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- 2004an eta 2005eko lehen hiruhilekoan aurkeztu diren eskaerak, egoitza batean, publikoa nahiz itundua, sartzekoak. Informazioa eskatzaileen herrien arabera antolatua egotea eskatzen da.

Esan diezazuket ezen, 2005eko martxoan, eskaeren zerrenda, herriz herri antolatua, hauxe zela:

Postu-mota	Lizarra		Nafarroaren iparmendebalde		Nafarroaren iparrekialdea		Iruña eta Iruñerria		Tafalla		Tutera		Guztira	
	Eskatzaile-kop.	Presakoak	Eskatzaile-kop.	Presakoak	Eskatzaile-kop.	Presakoak	Eskatzaile-kop.	Presakoak	Eskatzaile-kop.	Presakoak	Eskatzaile-kop.	Presakoak	Eskatzaile-1kop.	Presakoak
Lagunduak	15	1	14	1	3		153	25	11	2	18	2	214	31
Eguneko zentroa, lagunduentzat							7	2					7	2
Eguneko zentro psikogeriatrikoa							23	1					23	1
Egunez egotekoak							1						1	
Baliatzen direnentzako postuak	2	1					3	2					5	3
Lagunduentzako postuak	2	1					5	4					7	5
Psikogeriatrikoa	1		2	1			8	1					11	2
Baliatzen direnak	15	3	3	1	1	1	99	13	6		13	3	137	21
	35	6	19	3	4	1	299	48	17	2	31	5	405	65

Garrantzitsua da azpimarratzea Nafarroako Gobernuak jadanik baimendu duela 50 egoitza-postu ituntzea Amma Oblatas egoitza gerontologikoan, Iruñerrian postu itunduak eskatzen dituztenetatik postua presaz esleitu behar zaienentzat –balorazioen arabera–; horretarako, 579.357 euroko zenbatekoa bideratuko du 2005eko aurrekontualdi honetan.

2. Aurreko galderan aipaturiko eskaerei esleituriko postuen zerrenda. Informazioa egoitzen eta herrien arabera antolatua egotea eskatzen da.

Aurreko galdera zela-eta adierazitako datuak dira egoitza bateko postua oraindik esleitezke dauten eskaerei buruzkoak.

3. Zein dira egoitza batean sartzeko eskaerei postuak esleitzeko irizpideak?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako ebazpen baten bitartez onetsi zen pertsona ezgaituak egoitza gerontologikoetan sartzeko gizarte-baremoa. Bertan, bost alderdi nagusi balioesten dira; hain zuzen ere, hauexek: egoera soziala eta familiarra,

egoera ekonomikoa, etxebizitzaren egoera, adina eta bestelako inguruabarrak.

BALIOETSI BEHARREKO ALDERDIAK	GEHIENAKO PUNTUAZIOA
Egoera soziala eta familiarra	70 puntu
Egoera ekonomikoa	8tik -8 puntura arte
Etxebizitzaren egoera	10 puntu
Adina	3 puntu
Bestelako inguruabarrak	9 puntu

Egoera sozial eta familiarra aztertzean, aintzat hartzen dira babesgabetasun-egoerak, familiaren egoera, nola baldintzatzen duen zaintzailearen eta familiaren bizitza, ea liskarrik ote dagoen familiaren baitan, zaharra etxe berean dagoen ala familiararteko etxebizitza batetik bestera txandakatzen ote duten, bizikidetzaren etxebizitza berean zaintza behar duten pertsonen egoera zein den, ohiko zaintzaileen baldintzak zein diren, bai eta bizikide diren familiararteko egoera ekonomikoa ere, urritasun-kasuak edo egonkortasunik ezarenak izatearen ikuspegitik.

Ikuspegi ekonomikotik, kontuan hartzen da per capita errenta, ondasun higigarriak eta higiezinak, eta eskabidea aurkeztu aurreko urteetan ondasunak eskualdatu izana.

Etxebizitzaren egoerari dagokionez, kontuan hartzen dira bizigarritasun-baldintzak, bai eta oztopo arkitektonikoak egotea.

Adinaren faktorerako puntuazio ezberdinak ezartzen dira, eskatzaileak zein adin duen: 95 urte baino gehiago, 91tik 95era bitartean, edo 85etik 90era bitartean. Halaber, kontuan hartzen da, adina edozein dela ere, dementziaren bat pairatzea.

Azkenik, beste faktore batzuetan, kontuan hartzen da, besteak beste, eskatzaileak seme-alabarik ez izatea edo, badituenean, haien osasun-egoerak ezinezko egitea etxeko zaintza, edo zaintzan jarduteak zaintzaileari akidura eragitea, edo, seme-alabak izan arren, etxean bertan zaintza antolatzea ezinezkoa izatea.

4. Egoitza publikoetan hutsik dauden plazak dira lehenik esleitzen direnak?

Egoitza berekietan eta egoitza itunduetan eskuragarri dauden postuak esleitzen dira bereizketarik egin gabe, guztiak jotzen baitira postu publikotzat. Kontuan hartzen dena da egoitza bera eta postua eskatzen duen pertsonaren eta bere familiaren beharrezan hobekien egokitzen zaien laguntza soziosanitaria.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 12an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, egoitza publikoetan plazak ituntzeko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egoitza publikoetan plazak ituntzeko irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du egoitza publikoetan itundu gabeko postuak egoteari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, eta eginiko galderaren norainokoa argitzearren, ulertu behar da ezen galderak, plaza publikoak aipatzean, toki entitateenak diren egoitzetako plazak dituela hizpide (zeinak

arabide juridiko ezberdinen bitartez kudeatuak baitira), eta ez Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren ardurapeko zentroetan dauden plazak, zeren eta azken horiek, berekiak direnez gero, ezin baitira –bistan da– itundu.

1 eta 2. Zer irizpide daude egoitza publikoetako plazak itundu edo ez ituntzeko? Zer irizpide daude egoitza pribatuetako plazak itundu edo ez ituntzeko?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egoitza pribatu edo publikoetako plazak ituntzen ditu kontuan izanik zer-nolakoa den plaza itunduen onuradun diren erabiltzaileen eskaera, bai eta eskuragarri dagoen aurrekontua ere.

3. Nola uler daiteke Nafarroako herri berean egoitza pribatuak eta publikoak egotea eta plazak soilik egoitza pribatuekin itundu izana?

Departamentu honetan gai honetaz arduratzen diren zerbitzuei kontsulta egin ondoren, adierazi didate ez dutela ezagutzen galdera honetan aipaturikoa bezalako ezein kasurik.

4. Zer arrazoi direla-eta egoitza publikoetako plazarik gehienek ez daukate itunik Gizarte Ongizatearekin?

Lehen eta bigarren galderei emandako erantzunean adierazi dudana bezalaxe, besteren egoitzetako –publikoak nahiz pribatuak– plazan ituntzea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egiten du kontuan izanik zer-nolakoa den plaza

itunduen onuradun izatera irits daitezkeen balizko erabiltzaileen eskaera, bai eta, logikoa denez, eskuragarri dagoen aurrekontua ere. Beraz, itun bat egiterakoan, ez da aintzat hartzen egoitzaren izaera, baizik eta egoitza hori dagoen eskualdeko erabiltzaileei emanen zaien zerbitzua.

Bestalde, adierazi behar dizut ezen toki entitateek, dagozkien eskumenak egikaritzen dituztenean, zilegi dutela zerbitzu publikoak sustatu eta kudeatzea, haien jarduera-eremuan sortzen diren beharrezko erantzun ahal izateko.

5. Egoitzak dauden udalerriek zer tramite egin behar dituzte Gizarte Ongizate Departamentuarekin postuak itundu eta, horrela, nabarmena den diskriminazio bat saihesteko?

Aurreko galderei emandako erantzunetan adierazi dudana bezalaxe, ez dira toki entitateak izaten postuak beren egoitzetan ituntzeko tramiteak egiten dituztenak, baizik eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak sustatzen eta egiten dituzten egoki diren itunak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bitartez, kontuan izanik zein den eskaera eta aurrekontu eskuragarria.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, ibilgailuen ikuskaritza teknikorako gune berriak paratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak ibilgailuen ikuskaritza teknikorako gune berriak paratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du ibilgailuen ikuskaritza teknikoa egiteko estazio berriak irekitzeari buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. galdera.

Gaur arte ez da horrelako bilerarik egin. Egitekotan, eta ibilgailuen ikuskaritza teknikorako esta-

zio berriari buruzko behin betiko akordio batera iritsi ondotik, bilerak eginen dira udaleko ordezkari-kin, industria-dotazio berrien ezarpenean adostasunez jarduteko politikaren ildoari jarraiki.

2. galdera.

Ibilgailuen ikuskaritza teknikorako etorkizuneko estazio-sarearen diseinuan, balizko kokalekuak hautatu dira, kokapen geografikoa kontuan hartuz; horixe da Oronoz-Mugairi herriaren kasua. Hala eta guztiz ere, enpresa kontzesio-hartzailearekin lor daitekeen akordioari baldintzaturik egonen da behin betiko kokalekua, eta, edozein kasutan ere, lursail egokia eskuragarri egoteari eta udaleko ordezkari-ekin eduki daitezkeen harremanei.

3. galdera.

Baztan ibarra 1. eskualdearen barrenean sartuta dago, azaroaren 9ko 262/1989 Foru Dekretuan ezartzen den bezalaxe. Dekretu horren bidez arautzen da Nafarroako Foru Komunitatean ibilgailuen ikuskaritza teknikoaren zerbitzu publikoa, eta horren titulartasuna, enpresa kontzesio-hartzaile gisa, Tüv Rheinland Navarra S.A. enpresak dauka.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 12an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Hezkuntza Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak Buztintxuriko urbanizazio berrian eginen dituen jarduketei buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentua honako jarduketa hauek egiten ari da Buztintxurin hezkuntza-zerbitzuak egon daitezen.

1. Iruñeko Udalari Buztintxurin hezkuntza-jarduerarako orube bat eskatu.

2. Proposatutako orubearen kokagunea aztertu, 7. poligonoko 2.590 lurzattia hain zuzen, eta E1.3 azpi-etxadia (8.867 m²) aukeratu, hori iruditzeagatik egokiena ikastetxe berria jartzeko.

3. Eskola azpiegituren plan zuzendarian sartu, Iruñerriko ikastetxe berriak sortzeko planean hain zuzen, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe berri bat eraikitzea Buztintxurin. Hona egutegia:

– 2005: administrazio espedientearen hasiera.

– 2006: proiektua egitea eta obren zuzendaritza adjudikatzea.

– 2007: obrak hastea.

– 2008: obrak amaitzea; 4.823.000 euroko gastua aurreikusi da. Ikastetxea 2008/2009 ikasturtean funtzionatzen hastea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 12an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Buztintxuriko auzoberrian eginen dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Buztintxuriko auzoberrian lehenbiziko etxebizitzak beren jabeek aurki emanen zaizkiela-eta zerbitzuak abiarazteari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Buztintxuriko urbanizazio berrian zer jarduketa egin ditu edo egiteko asmoa du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, urbanizazio horretako bizilagunek departamentu horren ardurapeko zerbitzuak egiaz izan ditzaten?

Aipatzen den zerbitzua bidaiarien hiri-garraio publiko kolektibo erregularra bada, horren esku-mena eta kudeaketa Iruñerriko Mankomunitateak du esleituta, hala ezartzen baita Iruñerrian bidaiarien garraio erregularra arautzen duen ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legean.

Iruñerriko Mankomunitateak, departamentu honen laguntzarekin –Iruñerriko Hiri garraioaren Batzordearen bidez– dagoeneko jarriak ditu abian neurriak eta ekintzak eskualdeko hiri garraioaren antolamenduari dagokionez.

Buztintxurin eskualdeko hiri garraioa izan dadin, aldatu egin dira 8. linea (Nafarroako Blanca plaza-Sanduzelai) eta 9. linea (RENFE-Nafarroako Unibertsitate Publikoa); Sanduzelai auzoari ematen diote zerbitzua. Eta 16. linean (Berriozar-Noain-Berriain) geltoki gehiago jarri dira.

2005eko apirilaren 11n jarri ziren abian aipatutako zerbitzuak.

8. linearen zerbitzu berriaren ondorioz, linea horren urteko eskaintza areagotu egin da: 68.035,15 km autobuseko eta 3.378,78 ordu autobuseko.

9. linearen zerbitzu berriaren ondorioz, linea horren urteko eskaintza areagotu egin da: 56.816,12 km autobuseko eta 3.686,58 ordu autobuseko.

Eskaintzaren areagotzea, guztira, hau da: 124.851,27 km autobuseko eta 7.025,37 ordu autobuseko.

8. linean beste autobus bat jarri behar izan da lanegunetan (lehen hiru ziren, orain lau), eta 9. linean ere bai (lehen lau ziren, orain bost).

Erabilitako autobus motari dagokionez, biak ere autobus estandarrek dira, 12 m luzekoak.

Zerbitzuaren areagotzearen eta aldaketaren baldintza teknikoak honakoak dira:

a) 8. LINEA

– 8. linea ez da Sanduzelain sartzen eta Buztintxurira joaten da.

– Zerbitzua hobetu egin da: lanegunetan, 15 minututik behin pasa beharrean, 12 minututik behin pasatzen da.

Lanegunetan: Buztintxurin, lehena, 06:38an, eta azkena, 22:26an; 12 minututik behin pasatzen da.

Larunbatetan: Buztintxurin, lehena, 06:40an, eta azkena, 22:25an; 15 minututik behin pasatzen da.

Igande eta jai-egunetan: Buztintxurin, lehena, 07:02an, eta azkena, 22:22an; 20 minututik behin pasatzen da.

b) 9. LINEA

– 8 linea ez denez orain Sanduzelaitik pasatzen, 9. linearen zerbitzua areagotu egin da: 15 minututik behin pasatu beharrean, 12 minututik behin pasatzen da.

– Lehen, larunbat eta jaiegunetan, 9. linearen ibilbidea Merindadeen plazan amaitzen zen, Unibertsitatean ez baitago eskolarik. Orain Rodezno kondearen plazaraino jarraitzen du.

c) 8. ETA 9. LINEEK DUTEN IBILBIDE KOMUNA

– 8. eta 9. lineek duten ibilbide komuna koordinatuta dago eta tarte horretan batera ematen dute zerbitzua: 6 minututik behin izaten da autobusa.

d) GELTOKI BERRIAK BUZTINTXURIN

– 4 geltoki berri jarri dira Buztintxurin (Santa Luzia kalean). Horietako bat mugitu egin beharko da aldi batez; behin betikoz izanen duen kokagunea, izan ere, etxebizitza batzuetako obrek dute hartua.

e) 16. LINEA

Lanegunetan: Berriozarren, lehena, 06:25ean, eta azkena, 22:10ean; 15 minututik behin pasatzen da.

Larunbatetan: Berriozarren, lehena, 06:40ean, eta azkena, 22:15ean; 20 minututik behin pasatzen da.

Igande eta jai-egunetan: Berriozarren, lehena, 06:30ean, eta azkena, 22:15ean; 30 minututik behin pasatzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Baluarte lanean aritzen diren pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Baluarte lanean aritzen diren pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Baluarte-Biltzar jauregi eta auditorioko zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A. sozietatearen (aurrerantzean Baluarte) langile plantillan hamahiru pertsona daude, sozietate horrekin besteren konturako lan harremana dutenak. Plantilla horrez gain, Baluarte merkataritzako zenbait kontratu dauzka izenpeturik enpresa espezializatu batzuekin, zerbitzuak emateko. Enpresa horiek beren langileak dituzte, eta horiek lanean aritzen dira enpresa horien menpe eta kontura.

Halatan, eta programatzen joaten diren ekitaldien arabera eta Baluarte eskatuta, enpresa horiek beren zerbitzuak antolatzen dituzte eta haiek hautatzen dute zenbat langile igorri Baluartera lanera, zer ordutegitan, zer material edo makinak diren beharrezkoak –betiere kontraturiko enpresaren jabetzakoak– eta langile bakoitzari bete beharreko lana esleitzen diote.

Hauxe da Baluarteari zerbitzu ematen dioten enpresen zerrenda:

- Mantentze-lan orokorrak GIROA
- Eszenatokiko makineriaren eta argiteriaren eta ikus-entzunezko ekipoen mantentze-lanak THYSSEN
- Segurtasuna eta zainketa SECURITAS
- Garbiketa VELATE
- Aparkaleku publikoaren kudeaketa CINTRA
- Errestaurazio eta catering-a SERNAREST
- Ekitaldietarako laguntza zerbitzuak CONGRESOS NAVARRA
- Eszenatokiko ekipamenduaren kudeaketa zerbitzuak GLOBAL Y PROSCENIO
- Ikus-entzunezko ekipamenduen kudeaketa zerbitzuak TELESONIC
- Kontabilitate zerbitzuak S 2 G

Aipatutako enpresek Baluartera igortzen dituzten langileen kopurua aldatzen dute gauzatu beharreko ekitaldien kopuruaren eta izaeraren arabera. Haietako askok gorabehera handiak dituzte eraikinari esleitutako langileen kopuruan. Gutxi gorabehera esan daiteke enpresa horietako langileen kopurua hirurogeitik ehunera bitartekoa izan daitekeela, egun bakoitzeko ekitaldien kopuruaren eta ezaugarrien arabera.

Kasu guztietan zerbitzu espezializatuak direnez, Baluarteak aipatutako enprekin dituen kontratuak merkataritzakoak dira.

Bestalde, eta hori dela eta, Baluarteak ez daki zer lansari jasotzen dituzten langileek, eta langile

horiek beren enprekin duten lan harremanaren esparru pribatuko gaia delakoan dago.

Lan ordutegiari dagokionez, lehen esan dugunez, enpresa bera da ezartzen duena programatutako ekitaldien arabera, bai eta kontratu mota eta gainerako lan baldintzak ere, betiere lege esparru indardunarekin bat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria, Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko planaren ebaluaziorri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko planaren ebaluaziorri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurkako planari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen gizarte bazterkeriaren aurkako plana. Plan hori indarrean dago 1998. urtetik hasita 2005. urteraino. Plana aplikatzeko azken urtean gaudenez eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak plan horretan ezarritako helburuei, aurrekontuetan sartutako baliabideei eta helburuen lorpenari buruzko balorazioa egin izan duenez, hauxe jakin nahi dut: Zertan da ebaluazio prozesua?

Galderan bertan aipatzen den bezala, gizarte bazterkeriaren aurkako planak aurtengo abendura arte du indarra. Une honetan, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusia administrazio espedientea prestatzen ari da, plana ebaluatzeko laguntza kontratua adjudikatzeko lehiaketa arautu behar duena, betetzeko epea bat etor dadin indarraldia-rena amaierarekin.

2. Noizko aurreikusten du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak ebaluazioa amaitzea eta Nafarroako Parlamentuari igortzea?

Kontratua behin adjudikatuta, ebaluazioa eta diagnostikoa egiteko gutxienezko epea bost hilabetekoa da; beraz, aurreikusirik dago azterlana 2006ko lehen seihilekoan aurkeztea.

3. Gizarte Ongizatearen Departamentuak ba al du asmorik gizarte bazterkeriaren aurkako planari jarraipenik emateko etorkizunean?

Horri dagokionez, beste behin ere esan behar dut gobernu honek konpromisoa daukala gure gizarteko pertsona ahulenei laguntza emateko, egiaz gizartera daitezen. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak lanean segituko du horren alde.

Nolanahi ere, ezinbestez, erabakiak plan indardunaren ebaluazioaren emaitzak ikusirik hartuko dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Irantzu ibaira egindako minda isurketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak Irantzu ibaira egindako minda isurketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 25ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Irantzu ibaira egindako minda isurketei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.- Zer neurri hartu ditu departamentuak prebentziorako eta egoera lehengoratzeko?

2005eko apirilaren 4ko ikuskapen aktaren arabera, Ingurumen Departamentuari jakinarazi zitzaion arrain hilak zeudela Irantzu ibaian, ustez Zurukuaingo granja batek (SAT Urrea) egindako minda isurketa batek eraginda.

Departamentuko teknikariek ikuskapen aktari buruzko txostena egin ondoren, Jarduera sailkatuei buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean ezarritako legezko tramiteak hasi ziren, isurketaren erantzulea ustez den abeltzaintzako ustiategia jarduera eta irekitzeko lizentziak behar dituen instalazioa baita.

Ildo horretan, jakinarazpena igorri zitzaion Deierriko Udalari, eta ikuskapen akta-salaketako datuen berri eman zitzaion, aipatutako foru legearen 34.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera joka zezan. Udalak 2005eko apirilaren 26an jaso zuen eskaera, eta beraz maiatzaren 26ra arte itxaron behar da, udalak zerbait egin dezan, eta hala

bada, Ingurumen Departamentuari jakinarazi beharko dio.

Zehapen espedientea irekiz gero, haren barruan zehaztuko da abeltzaintzako ustiategiak zer erantzukizun duen eta zer zehapen dagokion. Bai eta eskatu beharreko neurriak ere.

2.- Zer berme eskatu zizkion departamentuak ustez ardua duen abeltzaintzako enpresari, eragindako kalteak konponduko direla eta berriro halakorik ez dela gertatuko bermatzeko?

Abeltzaintzako instalazioei, lizentziak eta bai-menak ematerakoan, ez zaie berme finantzariorik eskatzen ingurumen arloan izan ditzaketen erantzukizunei aurre egiteko.

Nolanahi ere, abian jartzen diren zehapen jarduketek emaitza gorabehera, SAT Urrea abeltzaintzako ustiategiak kalteordainak ordaindu beharko ditu egindako kalteengatik, zehazki, hildako arrain hauengatik: 411 loina, 134 barbo, 63 txipa, 11 zarbo eta 21 amuarrain, 2.518 euro egiten dutenak, Ingurumen kontseilariak emaniko maiatzaren 5eko 107/1993 Foru Aginduan ezarritako baremonek arabera.

3.- Departamentuak egindako ikuskapenari, jarduketei, txostenei eta erabakitako konponbideei buruzko txostena.

Departamentuaren jarduketa Lizarra aldeko ingurumenzainek egindako ikuskapen baten bidez gauzatu zen.

Ikuskapen akta horretan jaso denez, Villatuertako barrutiko zainari jakinarazi zioten hildako arrainak zeudela Irantzu ibaian, Villatuertako herriaren parean, eta ibaia ikustera joatean Villatuertatik ibaia gora, Grozingo zubirainoko tartean bazi-rela egiaztatu zen. Biharamunean, Irantzu ibaia aztertzeari ekin zioten, Ega ibaiarekin bat egiten duen tokitik Murugarren-Arizala errepideko zubiraino, eta egiaztatu zen arrain hilak zeudela Zurukuaingo SAT Urrea abeltzaintzako ustiategiaren inguruetaraino.

Zainak ustiatégira joan zirenean bazkideetako batek onartu zuen minda isurketa egin zutela apirilaren 1ean, arratsaldean. Granjak badu mindak biltzeko baltsa bat, aldizka zisternen bidez husten dena, mindak barreiatuko diren finketara eramateko. Titularrak esan zuen zisterna bat bete ondoren ahaztu zitzaiola zamarako mahuka desmuntatzea, eta bertatik alde egitean traktorearekin eta zisternarekin, mahuka atera egin zuela, eta horregatik isuri zela minda husteko ahotik, bere ustez hamar bat minutuz.

Apirilaren 5ean, zainak ibaian zehar ibili ziren eta hildako arrainak kendu zituzten: 411 loina, 134 barbo, 63 txipa, 11 zarbo eta 21 amuarrain. Nolanahi ere, egun haietan Irantzuko ibaiak zuen ur-emari oparoa ikusirik, litekeena da ibaiak berak ere hildako arrainak eramatea ibaian behera. Ukitutako ibai-tartean ez zen arrain bizirik ikusi, eta horrek pentsarazten du isurketa handi samarra izan zela, titularrak onartutako hamar minutukoa baino luzeagoa, nonbait.

Ondorioa da, beraz, isurketa handia izan zela, eta ukitutako ibaian ondorio larriak izan zituela, ibaiaren ur-emari oparoak lagundu bazuen ere kaltea arintzen. Isurketaren arrazoia nahigabekoa izan zen, minden baltsa husteko sistema erabiltzean izandako utzikeriak eraginda. Isurketa nahigabekoa izanenez, ez da bidezkoa kasu honetan ezarritako neurri teknikoaren osagarriak eskatzea.

Egindako ikuskapen aktaren Ingurumen Departamentuko Araubide Juridikoko Atalari igorri zaio, eta eskatu zehapen espediente bat ireki dezan. Horrez gain, SAT Urra granja birjauslea da, 2000ko ekainean ere Foruzaingoak salatu baitzuen minda isurketa batengatik.

4.- Abeltzaintzako ustiatégietan minda ekoizpena eta tratamendua ikuskatzeko eta berrikusteko departamentuak egin asmo dituen jarduketak.

2005eko otsailaren 16ko 184 Foru Agindua bidez onetsi zen jarduera industrialen ingurumen arloko ikuskapenen programa, 2005ekoa.

Ikuskatu beharreko jardueren artean abeltzaintzakoak daude, eta aurreikusirik dago 77 ikuskapen egitea aurtén, Foruzaingoak eta Sepronak egin beharrekoak. Ikuskapenetan garrantzi berezia emanen zaio mindak biltzeko baltsen egoerari eta ureztapen planen betetzeari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 16an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, ezgaitasuna dutenei laguntza ematen dieten langileen lansariak parekatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak ezgaitasuna dutenei laguntza ematen dieten langileen lansariak parekatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 25ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du ezgaitasuna dutenei laguntzeko zentroetako lehen hitzarmenerako 2004ko lansari-aurreakordioari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Ogasun Departamentuak akats instrumental baten berri eman du, ezgaitasuna dutenei laguntza ematen dieten langileen lansariak parekatzeko erabili beharreko 387.000 euroekin lotuta. Diru hori 2004. urterako ordainsariei buruzko hitzarmen baterako zen. Hitzarmen horretan, lansariak KPI baino gehiago igotzea aurreikusten zen, eta hori zentro desberdinetako lansariak parekatzeko lehen urratsa zen. Zein izan da akats instrumental hori?

2004ko martxoaren 4an, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak informatu zuen zein zen lan-hitzarmenaren negoziatorako esparru zehatza, EANA enpresaburuen elkarteak (Entidades Asistenciales de Navarra) eginiko eskaeraren ondorioz. Halaber adierazten zuenez, lan-hitzarmenaren kostuak pasatzeko erabili beharreko mekanismoa izanen zen itunak aldatzea; horrela, langileria-gastuen zenbateko handiagoa aurreikusiko zen eta, ondorioz, modulu handiagoa postu bakoitzeko.

Alderdi interesdunek errealitate hori ezagutzen zuten, eta askotan ohartarazi zitzaizen arriskua zegoela akordioa behar adinako denbora tartean

ez lortzeko, alegia, lan-hitzarmenaren finantzaketa 2004. urteko aurrekontuaren kargura ezartze alde- ra gobernuak emandako baimena tramitatu eta ondoren kontratuak aldatzeko behar adinako denborekin.

2004ko azaroaren 19an izenpeturiko aurreakordioaren akta 2004ko abenduaren 2an jaso zen Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan. Onetsitako testuaren eragin ekonomikoa neurtu eta gastu hori onetsi eta jarraian kasuan kasuko ituntan gastu hura erasatea ezinezkoa zenez abenduaren 31 baino lehen, ezinezkoa izan zen, halaber, gastu haiek 2004ko aurrekontuari egoztea, eta 2005ekoak ez zuen modurik ematen hitzarmen- an sarturik zeuden 2004ko gastuei aurre egiteko.

2. eta 3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ordaindu behar al du ezgaitasuna dutenei laguntzeko zentroetako lehen hitzarmenerako 2004ko azaroaren 19ko aurreakordioan aurreikus- ten zen eta konprometituta dagoen kopuru hori?• Ezezkoan, zergatik Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du betetzen lehen aipatutako aurreakordioa sinatzean hartutako konpromisoa?

2005eko apirilaren 21ean, Nafarroako Parla- mentuak mozio bat onetsi zuen, zeinak Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen ordain zezan 2004rako lorturiko lansari-akordioa, ezgaitasunak dituzten pertsonendako zentro publiko itunduen sektorerako lan-hitzarmenaren IV. eranskinean jaso. Mozio hori parlamentu-talde guztiek onetsi zuten.

Mozio horri jarraituz, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ordaindu eginen ditu lansari-akordio horretan 2004. urterako jasotako kopuruak. Berrespen horrekin, E.A.N.A. enpresa- buru-elkarteak eta langileen ordezkari diren sindi- katuek lan-hitzarmenaren testua sinatu zuten, 2005eko maiatzaren 2an.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parla- mentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren- goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 19an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseila- ria: José Ignacio Palacios Zuasti